



TRAMITAZIOAK/ LIZENTZIA ESKABIDEAK

PARTZELAK IXTEKO LIZENTZIA-ESKABIDEA

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Instantzia orokorra, behar bezala beteta.

- *Harremanetarako telefonoa jarri.*
- *Itxi nahi den partzelaren zenbakia eta poligonoa.*

Lurzati-zedula edo jabetza-eskritura.

Itxituraren ezaugarriak definitzen dituen krokisa.

Egin behar den obraren batez besteko aurekontua.

ARAUDI APLIKAGARRIA

62.4.1. ARTIKULUAREN ALDAKETA, ALTSASUKO UDAL PLANEKO HIRIGINTZAKO ARAUTEGI BEREZIARI BURUZKOA. ALDAKETA 2008KO OTSAILAREN 28KO OSOKO BILKURAN ONETSI ETA 2008KO APIRILAREN 2KO 42. NAON ARGITARATU ZEN.

62.8. LURZATIETAKO ITXITURAK

Edozein itxitura egiteko, udalaren obra lizentzia eskatuko da, agiri hauek ekarrita: lurzati zedula, jabetza eskritura eta egin behar den obraren aurekontua eta ezaugarriak definitzen dituen krokisa. Lurzatiak muga egiten badu errepide, ibai, trenbide eta abarrekin, sektoreko legeriak dioneari jarraikiko zaio.

Itxiturak honako baldintza hauek beteko ditu:

62.8.1. LURZATIETAKO ITXITURA HIRI LURZORUKO FINKETAN.

Itxitura gehienez 2,5 metro garai izango da, eta obrako zatia 1,25 metrokoa izan daiteke gehienez. Itxitura egiteko erabiltzen den materiala unitateko eraikuntzan erabilitakoa izango da, eta diseinuak lotura izango du harekin, ahal den neurrian. Altuera horretatik gora landaresiak eta/edo profilak jarriko dira, burdin sareak osatuz, zeinek zokaloaren material bereko pilastrak izaten ahalko baitituzte. Betiere, 1,25 metrotik gora debeku dira landareak ez diren elementu opakoak.

62.8.2. LURZATIETAKO ITXITURA LURZORU URBANIZAGARRIKO ETA LURZORU URBAZINEZINEKO FINKETAN.

Lurzatiko itxitura ez da, guztira, 2,5 metroko altueratik igaroko. Baimendutako hesolak egurrrezkoak edo metalezko profilak izango dira; debeku dira, espresuki, fabrikazko edo hormigoizko pilastrak. Itxitura osoa landaresia izaten ahalko da.

Burdin sareak sare elektrosoldatuaren edo alanbrearen bidez egiten ahalko dira, eta azken hori, eremu publikoarekiko mugan eta/edo bidean, ez da izango arantzaduna edo antzekoa.

Eremu publikoarekiko mugan, finkaren itxitura 3m metro eramango da atzera.